

## Gizonei buruzko antzerkia

Izaskun Lopetegi da zuzendaria ▶ 5



MILA AZALETA ▶ EGUNEKO ZENTROKO ERABILTZAILE BATEN ALABA

## «Beste jarrera espero nuen politikariengandik»

**GERONTOLOGIKOA** ▶ Tolosako Zentro Gerontologikoa itxita «gure bigarren etxea» galdu dutela dio

**GAUZAK** ▶ Adinekoak «gauzak balira bezala» tratatu dituztela dio, pertsoez ahaztuta ▶ 3



Mila Azaleta tolosarra, Zentro Gerontologikoaren ondoan; bertako eguneko zentroan izan da ama urte askotan, itxi arte. LEIRE MONTES

TOLOSA ▶

## Hasi da arrantza denboraldia; Orian ari dira arrantzaleak

Gipuzkoako onenetakoak aritu ziren atzo, telebista programa batengatik ▶ 2



Arrantzaleak eta telebista kamarak Oria ibaian atzo. IRATXE ETXEBESTE

ANOETA ▶

## Ordezko mozioak onartu ditu Udalak

Gerontologikoaren aldekoak ez ditu onartu ▶ 4

OREXA ▶



I.TERRADILLOS

## Eskulan tailerrean egindakoak ikusgai

Astelehena bitarte daude udaletxeko ganbaran ▶ 6

LEITZA ▶

## Astibiaren salaketak, TAT-en txostenean

Torturatu egin zutela salatu du gazteak ▶ 7

## ARRANTZA ▶

# Oria, arrantzarako ibaia

Igandean zabaldu zuten  
arrantza denboraldia;  
hil gabeko eremuan harrapatu  
genituen atzo hainbat lagun



## IRATXE ETXEBESTE

**N**ork ez du inoiz garai batean Oria ibaia zikin-zikina egoten zela aditu? Hogeita hamar urtetik gorakoez maiz ikusiko zituzten Oriako urak aparrez beteta, Tolosan, herria zeharkatzen duen eremuan. Eta ezagutu ez duenak ere ziur noizbait kontu hori entzun duela. Inguruko fabriken hondakinek kalte latza egiten ziotela Oria ibaiari.

Araztegiek mesede ederra egin dute azken urteetan, eta orain, zilegi da Oria ibaia garbi-garbi ikustea. Ahateak, arrainak, landareak... Bizia da berriro Oriako uretan eta bazterretan. Ingurumenari gero eta garrantzia handiagoa ematen zaionetik neurri gogorragoak ezartzen ari dira erakunde publikoak, izan ere, eta enpresek, eta, batez ere, paper fabrikek baldintza zorrotzak bete behar dituzte ibaietan eta erreketan kutsadurarik ez sortzeko. Eu-



Zortzi lagun aritu ziren atzo goizean Araba etorbideko zubiaren pare horretan arrantzan —ezkerrean—; telebista kamarak ere Oria ibaira jaitsi behar izan zuen —eskubian—. Goian, arrainarekin. IRATXE ETXEBESTE

## TXOMIN ASTIASUINZARRA ▶ ARRANTZA ZALEA

«Sei edo zazpi urterekin harrapatu nuen lehen arraina, eta ordutik hona ez dut gustukoago dudana afiziorik aurkitu»



ropan ingurumenarekin lotutako lege berria indarrean jartzen dutenetik gero eta garbia go etorriko dira ibaietako eta erreketako urak adituen esanetan. Antza denez, 2007rako, beranduenera jota.

Araba etorbideko zubian jende mordo zegoen atzo goizean. Ohi baino ibiltari gehiago. Ibaira begira ari ziren, alde batean eta bestean, geldirik. Behera begiratu, eta oinezkoak arrantzaleei so zeudela ohartu zen Hrtza. Ibaia eskuan aldean orain gutxi jarri duten kartela etorri zitzaigun gogora Oria ibaian zortzi bat lagun arrantzan ikusi orduko: 'Arrantza barrutia. Hil gabeko arrantza tartea'.

ETBko Postdata saiokoek egin zuten hitzordua arrantza zale haiekin hitz egiteko, eta guk baliatu egin genuen aukera, arrantzari buruzko argibideak lortzeko modurik egokiena zelakoan. Geroago jakin genuen zortzi gizonetako haiek

Gipuzkoako onenetakoak direla arrantza egiten; errekan bai, behintzat, eta bateko eta beste-ko txapelketatan irabazte izan direla sarri askotan.

18 urte ditu Txomin Astiasuinza hernaniarrak. Jubenil mailan Euskadiko Arrantza Txapelketa irabazi du berriki. Oraindik gogoan du «sei-zazpi urterekin» arrantzatu zuela lehen arraina, eta orduraz geroztik ez omen du gogokoago duen zaletasunik aurkitu. Hil gabeko tartean ari zen amuarekin solasean telebista kamarak berak egindakoa hartzen zuela: arraina harrapatutakoan, atzera uretara botatzen, alegia. Gauza bera ari ziren egiten gainerakoak ere.

Goian, zubian, Gipuzkoako Arrantza Federazioko laguntzaileetako batek eman zizkigun xehetasun argienak: joan den igandean hasitako arrantza denboraldia uztailaren 31n bukatuko dela, adibidez. Benta-Aundi jatetxerainokoa hil gabeko tartea dela, eta handik Arzabalza fabrikarainokoa, berriz, hiltzeko arrantza egin daitekeela ere esan zigun Jose-txo Iturralde. Egunko euro bat ordaindu behar da hil gabeko eremu horretan arrantza egin ahal izateko, eta 6 euro besterako, azken horretan, sei amuarrain harrapa daitezke, gehienez, egun bakoitzean, eta denboraldiko astearte guztietan debekatuta dago arrantza egitea. Paseak Benta-Aundi tabernan —astelehenetik ostegunera— edota Federazioan —ostiraletan eta larunbatean— eskura daitezke.

Tolosako Arrantzaleen elkarteak 200 kilo amuarrain bota zituzten orain hamabost bat egun Oria ibaira, eta horietako asko ubarroiak omen dituzte dagoeneko. Arrantzan fin jardun ezean berehala desagertuko dira denak.

## iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

## ETXEBIZITZAK

**Alegia.** Erdialdean, plaza inguruan. 3 logela eta 2 bainu dituen etxebizitza. Mandio. 669 87 19 09.  
**Azpeitia.** Erdialdean. Bizitza sartzeko. 90 m<sup>2</sup>-koa, 1, 2 eta 3 logela. Balkoia. 28.000.000 pta.  
**Berastegi.** 70.000m<sup>2</sup>-ko lurra eta borda. 27.000.000 pta.  
**Berrobi.** 65 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. 2 logela, zoragarria, eguzkitsua, 2 balkoi, al-

tzariz hornitua. Sartzeko prest. 33.000.000 pta.  
**Belauntza.** Bi familientzako etxebizitza, garaje, terraza eta terrenoarekin. Caparros (Nafarroa). Txalet abikia. Jardina. 2 pisu. Eraikuntza berriak.  
**Hernani.** Eraikuntza handia. 3 logela, musika haria. 80 m<sup>2</sup> eta 40 m<sup>2</sup> jardinarekin. Etxe ederra. 57.000.000 pta.  
**Irura.** 2 logelako etxebizitza. 2 bainu-gela, garajea, trastelekua eta jardina.  
**Ibarra.** San Ignazio auzoa. 2 logela, berogailua, bizitza sartzeko. 32.000.000 pta.  
**Ikaztegieta.** 100 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. Garaje itxia. Egongela handiarekin.  
**Tolosa.** Izaskun. 2 logela, sukaldea eta gela balkoiarekin.  
**Tolosa.** Araba etorbidea. 5 logelako etxebizitza. Erabat eguzkitsua, ibai-

dea. Garaje marra eta trastelekua.  
**Legorreta.** Etxe abikia. 44.000.000 pta.  
**Legorreta.** Txalet abikia. Trastelekua, terraza. Egoera ezin hobean. Bizitza sartzeko.  
**Tolosa.** Erdialdean. Eraikuntza berriko apartamentuak. 2 logela eta 2 bainu.  
**Tolosa.** Erremontari kalea. Eguzkitsua 3 logela. 30.500.000 pta.  
**Tolosa.** Pintor Lekuona. Apartamentua bizitza sartzeko. 1 eta 2 logela. 28.000.000 pta.  
**Tolosa.** Pintor Lekuona. Bizitza sartzeko, 2 logela, egongela, balkoiarekin. 29.500.000 pta.  
**Tolosa.** Zumalakarregi. 3 logela, igo-gailua, berogailua. 45.000.000 pta.  
**Tolosa.** Laskorain kalea. Egoera ezin hobean. 2 logela, egongela, sukaldea

eta jangela. Sabai altuak. Etxebizitza handia eta gazteentzat. Diseinuzkoa. 45.000.000 pta.  
**Tolosa.** San Esteban. 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. 3 logela, berogailua, eguzkitsua. 35.000.000 pta.  
**Tolosa.** Gudari kalea. Terraza. Berri-tua.  
**Tolosaldea.** Etxebizitza berriak. 1 eta 2 logela. Garajea marrarekin eta igo-gailua. 24.125.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.  
**Zizurkil.** 3 logela dituen etxebizitza, kanpoaldera. Balkoi itxia, ganbara.

## NEGOZIOAK

**Ileapaindegia.** Alokatzeko. 90 m<sup>2</sup>. Guztiz diseinaturia. Mandio. 669 87 19 09.

## LOKALAK

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan.  
**Tolosa.** Erremontari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta.  
**Tolosa.** 428 m<sup>2</sup>-ko pabilioi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbide ondoan.  
**Tolosa.** Lokalak salgai, Laskorain kalean, Rondilla kalean, Erremontari kalean, Trianguloan eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.  
**Villabona.** Lokal berria, 35 m<sup>2</sup>, sukaldez hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta.  
**Belauntza.** Pabilioia 250 m<sup>2</sup>. 32.500.000 pta.

MILA AZALETA ▶ EGUNEKO ZENTROKO ERABILTZAILA BATEN ALABA

# «Gure bigarren etxea galdu dugu, familia bihurtu diren lagunak, babes»

Aldundiak zentroa «gainetik kendu nahi» zuela dio, eta diruari erreparatu diola; «gauzak balira bezala tratatuz», pertsonen ahaztu dela salatu du Azaletak

LEIRE MONTES

Gerontologikoan egin dugu hitzordua Mila Azaletarekin. Duela gutxi arte, haren amak han pasatu ditu ordu dezente, eguneko zentroan. Orain, zentroa itxita, Jesusen Zerbitzarien egoitzara joan behar izan du. Hutsune handia nabaritzen da zentroan: egoiliarrik ez dago jada, eta jende gutxi dabil hara eta hona; tristura eta mina agerikoak dira gelditzen direnen artean. Gure elkarrizketatua ere hala dago, minduta, triste eta haserre. Baina ez etsita.

**Gerontologikoa itxi arte, eguneko zentroko erabiltzailearen zure ama.**

Zahartzaroko dementsia du amak, eta duela hiru urte hasi nintzen hona ekartzen. 10:30-etik 18:00ak arte hemen zaintzen zuten; gero, haren bila joaten ginen, eta gurekin pasatzen zituen gainontzeko orduak. Larunbata eta igandea barne zuten zerbitzu hori jasotzeko parada. Gainera, Arnasa eta Sendian programak ere bazuuden.

**Zer dira programa horiek?**

Foru Aldundiaren programak dira, senitartekoei atseden hartzeko aukera eskaintzen dituna. Sendian programari esker, hilean behin amak asteburu guztia zentroan pasatu zezakeen. Arnasa programarekin, hilabete bat genuen, beharren arabera, libre hartzeko.

**Eta orain?**

Egun batetik bestera dena aldatu da. Jesusen Zerbitzarien egoitzara eramaten dugu orain ama. Harekin batera, Gerontologikoko eguneko zentroan zeuden beste hiru pertsona daude han. Zerbitzu bera jasotzen dute. Asteburuan ere bai, baina haiek soilik: Foru Aldundia akordio batera iritsi da mojekin, guri zerbitzu hori asteburuetan ere eskaintzeko; baina inork gehiago ezin du jaso. Dena den, Ostiral Santua, esaterako, haien oso egun garrantzitsua dela eta, esan digute ez dutela zerbitzua mantenduko. Arnasa Programa desagertu egin da, ezin dugu ama asteburuetan han utzi. Bizitza erabat aldatu egin zait. Ez dut anai-arrebarik, eta ama nire beharretan da etengabe.

**Aldaketaz jabetu al da?**



LEIRE MONTES

Jakitun da zerbait pasatu dela. Oso pozik dago mojekin, eta oso ondo zaintzen dute. Baina galduta dago. Bere gaixotasuna dela eta, ohitura eta pautak berak jarraitu behar ditu; horrela sentitzen da seguru. Eta orain nahastuta dago: ez du betikoa egiten, ez dago betiko lekuan, ez ditu betiko lagunak ondoan... Gerontologikoaren arazoarekin, okerrera egin du nabarmen. Oso gogorra da hori ikustea.

**Aldundira jo duzue. Zer esan dizuete?**

Oso minduta eta haserre gaudete. Ez genuen inongo gutunik edo jakinarazpen ofizialik jaso. Egun batetik bestera, hemen diktat joan egin behar genuela jakin genuen. Baina ez Aldundiak esan zigulako; hemengo gizarte laguntzailearen bidez jaso genuen berria, eta gero mojek deitu ziguten. Haiei ere gainezka egin die aferak: ez dute senitartekoekin elkarrizketatzeko astirik izan; eta, egun batetik bestera, hamabi lagun

gehiagotaz arduratu behar dute. Lotsagarria izan da Aldundiaren jarrera.

**Eman al dizuete itxierari buruzko azalpenik?**

Gauza bera errepikatzen dute etengabe: zentro hau oso garestia zela, behar baino langile gehiago zituela... Beti besteentzako eredutzat jo dute Tolosa-ko Gerontologikoa, hala saldu dute non-nahi. Eta orain itxi egiten dute, jakinda plaza eskariak bere horretan jarraitzen duela eta babestutako etxebizitzaren benetakoa premiarik ez dagoela. Kontraesanek beterik dago erabakia. Aldundiak zentro hau gainetik kendu nahi zuten, eta kitto. Baina hau ez da diru kontua; ez gara gauzetaz ari, hemen pertsonak zeuden. Eta hori haiei bost axola.

**Nola erantzun du herriak?**

Jendea asko inplikatu da, eta babes zabala jaso dugu. Bartzuk, dena den, uste dut ez direla benetan jabetu hemen pasatzen ari denaz. Beharbada ez dielako zuzenean eragin, edo

## ERAKUNDEAK

«Desengainu handia hartu dut, beste jarrera espero nuen politikariengandik; nire konfiantza galdu dute

informazio nahikorik ez dutelako. Bide batez, esan nahi dut plataforma gune irekia dela, eta edonork har dezake parte. **Aldundiarekin minduta zaudete. Udalaren jarrerari buruz zer iritzi duzue?** Udalak ez du ezertxo ere egin. Desengainu handia hartu dut. Politikariengandik beste jarrera espero genuen. Politikari baino lehen, pertsonak direlako. Haiengan nuen konfiantza galdu dute. Gerontologikoaren itxierak egoiliarrik, erabiltzaileak, langileak eta senitartekoeak kaltetu gaitu. Baina ez gu bakarrik. Tolosaldeari egin dio eta egingo dio min itxiera honen.

**Zerbitzu bat baino zerbitzu gehiago galdu duzue...**

Gure bigarren etxea galdu dugu guk. Familia bihurtu diren lagunak, babes, konpainia... Familia handi bat bezala izan da beti zentro hau guretzat, oso gertukoa; gure senitartekoeak ondo egongo ziren segurtasuna genuen etengabe. Horregatik aukeratu genuen. Ez dugu inon zentro hau bezelakorik aurkituko. Bide batez, amak eta familia guztiak jaso dugun babesagatik eta maitasunagatik eskerririk beroenak eman nahi dizkiet langileei.

**Indarrez nola zaudete?**

Egunik gogorrenak pasatu dira, baina ezin dugu guztia burutik kendu. Etengabe kolokan egote hori nekagarria da oso. Baina ez dugu etsi nahi.

**Ba al duzue ezer egiterik?**

Uneoro galdetzen dut: 'Egunen batean ama zentro batera eraman behar badugu, nora jo dezaket?' Eta inork ez dit erantzuten. Ni bezala, beste hainbat eta hainbat lagun daude eskualdean. Tolosaldean 70 plaza falta dira oraindik. Eta horiek lortzeko tinko borrokatuko gara. Geratzen zaigun bakarra protesta egitea da. Eta ziur egon oraindik luzarotan entzun egingo zaigula.

GUTUN@K ▶



## IGARI, esker onez

Ibarrako Gazte Asanbladak (IGA) duela hilabete batzuk Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako futbol txapelketa antolatu zuen. AHT gelditze-ko eta proiektuak eragingo litzuzkeen ondorio ekologiko eta sozialak salatzen ari den Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak, IGARI gure esker ona adierazi nahi diogu. AHT proiektu txikitzailearen oposizioarekin bat egiteagatik, eta baita diruz lagunduz hain eskuzabala izateagatik ere: eskerririk asko.

MANU ODRIOZOLA ▶ TOLOSALDEKO AHT GELDITU! ELKARLANAREN IZENEAN

## Jokin Uriarte

Batzuek diote unibertsoaren izpirituak arrano izugarri handi baten itxura duela, eta han sortzen dela jaiotzen den guztia, eta han bukatzen hiltzen den guztia.

Sentsazioak, sentimenduak, esperientziak omen ditu elikagai, eta bizi den guztiaren beharra omen du biziko den guztia sortzeko.

Oraingo honetan, zure bizia eraman du eta, harekin batera, gure bizitzaren zati bat ere bai. Bizi gehiago sortzeko beharrezko den guztia daramazu eta horrela, Jokin, denok elkarrekin jarraituko dugu nolobait, eternitateak irauten duen bitartean.

JOSUNE AGIRRE, ZURE LAGUNEN IZENEAN ▶ TOLOSA

ABERRI EGUNA ▶

## Ikurrinak banatzen, Aberri Egunerako

Igandean, hilaren 27a, Aberri Eguna dela eta, Kultur Etxean ikurrinak banatzen ari dira, herritarrek beren etxeetan jar ditzaten. Nahi duen edonork Kultur Etxetik pasatu besterik ez du.

HEZKUNTZA ▶

## Soldadura ikastaroak Peñascalén

Soldadura ikastaroak eskaintzen dituzte Peñascal fundazioan. Eusko Jaurlaritzako Hobetuz programak %100ean laguntzen ditu diruz; beraz, doakoak dira. Informazioa eta izen-ematea 943 67 61 61 telefono zenbakian.

ANOETA ▶ UDALBATZARRA

# Aurkeztutako mozioen ordezkotestuetak onartu ditu Udalak

Tolosako Gerontologikoaren, Jarrai-Haika-Segi auziaren, euskal preso politikoen eta AHTaren inguruan aurkeztu ziren

IMANOL GARCIA

Azkeneko osoko bilkuran lau gaien inguruan mozioak aurkeztu ziren Anoetako Udalean. Tolosako Gerontologikoaren, Jarrai-Haika-Segi auziaren, euskal preso politikoen eta AHT-ren inguruko mozioak izan ziren eztabaidatutakoak eta lau horietan udalbatzak EAJ-EAK aurkeztutako ordezkotestuetak onartu zituen.

Gerontologikoaren kasuan, senideek eta bertan osatutako Plataformak mozio bana aurkeztu zuten, herri plataformaren babesa jasoz. Gerontologiko Plataformaren mozioan eskatzen zen «arduradun politikoei hartutako erabaki larriaren aurrean, Gipuzkoako Diputazioari ixteko erabakia eta horretarako duen borondatea baztertea». Senideek, beren aldetik, mozioan azaltzen zuten, «ez dugu ikusten arrazoirik Diputazioak Tolosako zentroa ixteko hartu duen erabakirako eta horregatik berresten dugu justifikaziorik gabeko erabaki arbitrarioa dela eta beraz gure oposizio irmoena eta gaitzespena azaltzen dugu». Honekin batera, «Tolosaldeko udal guztiei Gerontologikoaren ixtearen aurka azaltzeko eskatzen diogu». Udalak onartutako testua beste bi mozioen aurka azaltzen zen, «Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren artean lortutako adostasunaren ondoren, gaur egungo egoera aski desberdina dela irizten dugulako». Udalak onartutako testua azaltzen duenez, «era-

baki ona dela irizten diogu, etorkizunean Tolosaldean prestatu beharreko zerbitzuak berrantolatzen eta zabaltzen dituelako». Bestalde, zalantza azaltzen zuten «laguntza behar duten pertsonentzako plazak ez ote diren gutxituko» eta gai honetaz («jarraipen bat egiteko» konpromisoa hartu zuten.

Herri plataformak aurkeztu eta *Estatus politikokoaren alde, euskal presoak Euskal Herrira izeneko mozioan, besteak beste*, «Euskal Preso Politikoen Kolektiboak Euskal Herriaren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean zuzenean parte hartzeko eskubidea aldarrikatu» eta hori gauzatzeko «isolamendu eta sakabanaketarekin bukatu eta euskal presoak Euskal Herriaren egoteko duten eskubidea» bere egiteko eskatzen zitzaien Udalarari, baita martxan den presoan borrokaldiarekin «bat egiteko». Udalak onartutako testuan euskal presoek duten «parte-hartzearen eskubidea» aldarrikatu eta «sakabanaketa eta isolamendu egoera behin betirako amaitzea» exijitu zuten. Anoetarrok Auzolanean plataformatik Udalarari «euskal presoaren eskubideen defentsan konpromiso minimo bat hartzeko, banderola udal txeko balkoian zintzilikatuz», eskatu zuten. Bestalde, EAJ-EA udal taldeko zinegotzi bati «koherentzia» eskatu zioten, «presoaren eskubideen defentsaren aldeko sinadura bilketa egitera etxetik joan ginenean inongo begirunerik eta edukaziorik gabe atea aurpegi aurrean itxi baitzigu».

AHTaren inguruko mozioan, hau ere herri plataformak aurkeztu, «garapen politiko, ekonomiko eta sozialen ordezkotestuetan adinako kalteak ekarriko dituelako, gutxi batzuen mesedetan», Udalarari AHTren proiektua gelditzeko eskaria egiteko gonbidatzen zitzaien eta «azpiegiturei buruzko eztabaida politiko eta sozial bat hasteko premia» aldarrikatu eta bultzatzeko. Udalak, onartutako testuan azaltzen zuenez, «gaur egungo inguruarekin kalterik nagusienak mugikortasun ereduaren ondorio dira» eta «beharrezkotzat jotzen dugu trenbide sare egoki bat edukitzea». Mozioak gaineratzen zuenez, «gure EAJ-Eko erakundeei ekindako bi-deari jarraitzeko eskatzen diogu».

Jarrai-Haika-Segi auziari zegokion mozioan —herri plataformak aurkeztua—, besteak beste, «epai bidean dauden 42 gazte hauei bere babesa luzatzeko» eskatzen zitzaien Udalarari. Udalak onartutako testuan adierazten zenez, besteak beste, 18/98 makrosumarioan «talde armatuko kide izatearen delituen irakurketa zabal eta interesatu bat eginaz, zilegiak diren hainbat ekimen ilegal izatera pasatzen dira. Justiziarren erabilpen hau salagarria da». Herri plataformak, Udalarari zuzenduz, «koherentzia minimo bat balute, espainiar estatuari gazte hauen eskubideak errespetatzeko eskatu aurretik anoetarren eskubideak errespetatu beharko lituzketela», azaldu zuten.

ZIZURKIL ▶ KIROLA

## Erasun, larunbateko kanporaketan izango da

Zubiagaren aurka irabazi ondoren, Urrezko Aizkorako hurrengo hitzordua Asteasun du

I. GARCIA

Zizurkilen bizi eta aiarra den Juan Manuel Erasun larunbat gauean ariko da Asteasuko frontoian jokatu den Urrezko Aizkoraren sari nagusiaren kanporaketan. Pasatu den asteburuan sartu zen lehiaketan eta bere lehen kanporaketa horretan Zubiagaren aurka irabazi zuen. Bakion izan zen norgehiagoka eta orain Asteasun izango du hurrengo hitzordua.

Larunbateko kanporaketan Etxebesteren aurka ariko da Erasun, lehiaketan ahal duen urrunen iristeko nahiarekin. Ez da, baina, Urrezko Aizkoraren buruan duen erronka bakarra. Uztaillaren 2an jokatu den Euskadiko Bigarren Mailako Txapelketan parte har-



Erasun. K. ALDUNTZIN/BERRIA

tzeko asmoarekin dabil Zizurkilen bizi den kirolaria. Eta denboraldiko hirugarren erronka Olasagastiren aurka duen sega eta aizkora apusturako prestatzea da. Lehia interesgarri hori uztaillaren 24an jokatu dute.

ASTEASU ▶ HERRI KIROLAK

## Andazarraten euskal giroko erakustaldia

Astelehenean izango da eta besteak beste idi proba eta ahari proba egingo dira

I. GARCIA

Herri kirolen erakustaldia izango da Andazarrateko parkean datorren astelehenean, hilak 28. Goizeko 11:30etan hasiko dira ikuskizunak. Alde batetik idi proba egingo da, kantabriar erara, Aitor Aizpuru eta Joxe Barriolaren artean. Ahari proba ere izango da, Joxe Mari Soraluze eta Inaxio Tapiaren aharien artean. An-

gel Elosegik eta Joseba Eganak, bere aldetik, motoserra erakustaldia egingo dute. Bestalde, zaldi lasterketa, korrikariak eta aizkolariak izango dira.

Euskal giroko erakustaldia, beraz, Andazarrateko gerturazten den ikusle goak ikusi ahal duena eta Olarra Goikoa jatetxea, Izurtzu erretegia eta Aize-Ona jatetxearen laguntzaz antolatuta dena.

hitza

lagunen  
**txokoa**

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46  
(8:30 / 20:30)

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

Astebukaera honetan *Leidorren* emango diren 'HITCH, ESPECIALISTA EN LIGUES' edo 'BLADE TRINITY' filmetarako 2 sarreraren irabazlea:

**RAFAEL SEGUROLA HARMELA** HITZAren harpidedun laguntzaile tolosarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ALEGIA ▶ KULTURA

# Gizonei buruzko antzezlanak taula gainera, gizonik gabe

Alegiako Ttapa antzerki taldeak Kultur Etxean estreinatu zuen 'Gizonak' antzezlanak jende ugari bildu zuen



Antzezlan arrakastatsua izan zuten Ttapa antzerki taldeko neskek *Gizonak* lana taularatu zutenean. HITZA

IZASKUN LOPETEGI ▶ TTAPA ANTZERKI TALDEKO ZUZENDARIA

## «Goi mailan ez bada, oso zaila da antzerkitik bizitzea»

Izaskun Lopetegi, Ttapa taldeko zuzendaria, pozik dago Alegiako antzerki taldeak lortutako emaitzekin, izan ere «arazo guztien gainera» lana taularatu zuten ikusleen artean arrakasta handia eskuratu.

**Zaila al da zuzendari lanetan aritzea?**

Guk oso giro ona daukagu gure artean eta horrek asko laguntzen du; nire lana, gehienbat, dena gainbegiratzea da eta aktoreen nondik norakoak adieraztea.

**Gustura al zaude aukeratu zenuen ogibidearekin?**

Antzerki mundua oso zaila da.

Jendea antzerki profesionala ikustera ohituta dago, eta ez dago amauteerentzat tokirik. Goi mailan ez bada, oso zaila da antzerkitik bizitzea.

**Zein izan da zure ibilbide profesionala?**

1993.ean antzerki ikasketak amaitu nituenetik batean eta bestean aritu naiz lanean, bizi-modua antzerkitik ateratzen ez badut ere, besteak beste, Ager taldean, Dzanga taldean, Dar-dar produkzioak. Herriko Inaxio Begiristainekin hasi nintzen.

**Zer moduzko harrera izan zuen 'Gizonak' antzezlanak?**



NOELIA LATABURU

Duda izan nuen zein antzezlan aukeratu. Hau komedia bat da eta jendeak oso ondo pasa zuen, hori esan ziguten lana amaitzerakoan, behintzat. Gizonen bat edo besten protesta-txoak jaso genituen, baina txantxak baino ez ziren. ◀

NOELIA LATABURU

1999. urtean Alegiako Kultur Batzordeari antzerki talde bat sortzeko ideia otu zitzaion. Inaki Begiristain Alegiako antzerkigile ospetsuaren omenez. Bururatu eta burutu. Horrela, deialdi bat luzatu zen herritarren artean eta urte bereko urrian bertan Ttapa antzerki taldea osatu zen. Hainbat pertsona igaro dira taldetik, baina egun zazpi partaide dira —Maitane Agirre, Ainhoa Zubeldia, Edurne Arraie, Larratiz Irazusta, Ainhoa Ezeiza, Eider Zubillaga eta Inma Etxeberria— eta zuzendaria —Izaskun Lopetegi—.

Orain gutxi *Gizonak* izenpeko antzezlan taularatu zuten Alegiako Kultur Etxean. «Oso hunkigarria da beti zure herrian antzeztea», aitortu du Ttapa taldeko zuzendaria den Izaskun Lopetegik. Aretoa jendez gainezka zegoen eta oso harrera ona egin zioten herriko zazpi aktore hauen lanari. Antzezlan aukeratzea zaila izan zela ere esan zuen Lopetegik, izan ere «denak emakumeak behar zuten izan». Halaber, taldekide guztiak emakumezkoak izatea ez dela «guk hala nahi dugulako, baizik eta ez dagoelako horretarako prest dagoen gizonik» azpimarratu nahi izan du Ttapa taldeko zuzendariak. Lehen urratsa antzezlan euskarara itzultzearena izan zen; ondoren, berriz, tailer bat diseinatu zuten taldekoek, entseguak jorratu ahal izateko.

Baina ez da hau aurkeztu duten lehen lana, izan ere, aurretik *Lurrin argia* izeneko antzezlan zuten, Inaki Begiristainek euskarara itzultitako Patrick Hamiltonen lana, alegia. «Hau drama bat da eta zailagoa izan zen aurrera ateratzea», esan du Lopetegik.

Antzezlan ondo aukeratzen jakitea ezinbestekoa dela azaldu du zuzendari gazteak, izan ere «jendea antzerkira joaten da arazoez ahazteko eta une atsegina igarotzeko».

**Erronka: saio gehiago izatea**

Gizonak antzeztea erabaki zutenetik egi bihurtu den arte, bi urte eta erdi igaro dira «bata zela edo bestea zela». Hori dela eta, gehiagotan antzeztu nahiko lukete Alegiako neskek haien lana eskualdeko zenbait herritan. Lopetegik inguruko herri gehienetarako bidali zuen obraren sinopsia eta hau antzezteko zuten grina, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. «Aukera bat nahi dugu, beti ere herri mailako antzerkia aurrera ateratzea zailagoa baita», esan zuen Lopetegik.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetalde.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
 ▶ San Esteban: 00 68 00  
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
**Villabona.** Anbul.: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
 ▶ Taxia: 67 04 20  
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14  
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. (Tolosa). 943 65 46 10  
 Erbiti, O. Lizarraga, 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
 tolosaldeko\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
 villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetalde.** 687 41 00 22  
 anoetalde@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32.  
 ibarralde@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitza.** 687 41 01 18.  
 leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

**Leitza.** Oialde taberna alokatzen da. Jatebea aparte alokatzeko aukera. Interesatek deitu 948 510 213ra.

LANA

**Ileapaintzailea.** Ileapaintzaile bat behar da sei hilabetetarako. 943 694 261.

SALGAI

**Teklatua.** Roland VA7 markako teklatua saltzen da. Deitu 943 11 77 38 zenbakira.



## OREXA ▶ KULTURA



**Erakusketa.** Etxerako era guztietako apaingarriak daude ikusgai udaletzeko ganbaran; maindireak, aho-zapiak, mahai-zapiak, tapeteak, lanparak, kortinak, koadroak, ontziak... guztiak Orexako eskulan tailerrear parte hartzen ari diren 10 emakumeek euren eskuz eginak. IÑIGO TERRADILLOS



**Koadroak.** Arez eginiko hainbat koadro daude zintzilik ganbaran. Areari kolore desberdina emanez lortzen dute nahi duten irudia. I.TERRADILLOS



**Lanparak.** Koadroez gain, area erabili dute baita ere lanparak apaintzeko; kolore berezia eman diete eta egiten duten argia ere horrelakoa da. I.TERRADILLOS



**Ontziak.** Buztinezko zein kristalezko ontziak daude. Forma bereziak eman eta pintatu dituzte hauek. IÑIGO TERRADILLOS



**Oihal desberdinak.** Oihala da nagusi erakusketa honetan; kortinak, mahai-zapiak, aho-zapiak, maindireak...denak eskuz eginak. I.TERRADILLOS

# Eskulan tailerrear eginikoak ikusgai

Udaletzeko ganbaran daude ikusgai astelehena bitarte; herriko 10 emakumeek hartzen du parte eskulan tailerrear

IÑIGO TERRADILLOS

Datorren astelehena bitarte ikusgai daude Orexako eskulan tailerrear parte hartzen ari diren emakumeek eginiko lanak. Hauek udaletxearen ganbaran ikusi ahal izango dira 17:00etatik 19:00etara.

Artista handiak direla eraku-

tsi dute Orexako herritar hauek, euren eskuz egindako apaingarrietan ikus daitezkeen bezala.

10 emakumez osaturiko taldea izan da hain zuzen apaingarri hauen guztien egile. Pasa den urteko urrian hasi ziren eskulan tailerrear eta apirilaren emango diote amaiera, bai-

na aurretik bertan ikasi dutena herritarrei erakutsi nahi izan diete erakusketa berezi honen bidez.

Etxerako erabilgarri diren era guztietako apaingarriak dira nagusi erakusketa honetan: ontziak, koadroak, mahai-zapiak, kortinak, kutxak, hautsontziak, lanparak eta abar

luze bat, guztiak ere eskuz eginak edo pintatuak.

Oihal desberdinak erabilia, tapeteak, toallak, mahai-zapiak, aho-zapiak, kortinak, maindireak egin dituzte eta parpailak dituztela gehienek ere aipatzekoa da. Garai batean erabiltzen ziren bezalako sehaska batez ere hornitu dute erakusketa emakume hauek. Kasu honetan egurra zaharberritzeaz gain apaingarri moduan oihalak egokitu dizkiote sehaskari.

Areaz egindako koadroak ganbarako paretetatik zintzilik ikus daitezke. Paisaiak, lanean diharduen okina, zein arropa garbitzen ari diren emakumeak agertzen dira hauetan magoturiko hondarrez egin dituzten koadroetan. Baina ez dira

koadroak arez eginiko lan bakarrak; material hau erabilia lanparak apaindu dituzte eskulan tailerrekoek.

Kutxak eta kristala margotuz edertu dituzten ontziek eta hautsontziek osatzen dute erakusketa. Sei hilabeteko lana erakusten dute horrela elduindar hauek, baina zati bat besterik ez dela azaldu dute, euren etxeetan beste hainbeste baitute gorderik guztia erakusketan sartzerik ez baitzegoen, eta egingo dutena, ikastaroa amaitzeko beste hilabete inguru geratzen baita oraindik.

Astelehena bitarte izango dute lan hauek ikustera animatzen direnek erakusketara joateko aukera, eta horretarako Orexako udaletzeko ganbarara jo beharko du arratsaldeaz.

## LEITZA ▶ KIROLA

Buruz-buruko Pilota  
Txapelketan bi leitzar

Talde desberdinetan egokitura, Barriola eta Bengoetxea VI.a elkarren aurka ari daitezke



Barriola eta Bengoetxea, Buruz-burukoaren ariko diren leitzarrik. J. A.

## J. ASTIBIA

Herenegun aurkeztu zuten Eskuz Banakako Pilota Txapelketa Bilbon, eta hantxe ziren, besteak beste, Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea ere.

Parte hartuko duten 20 pilotariak zozketaz taldekatu zituzten eta bi leitzarrei talde desberdina egokitu zitzaizkien: Martinez de Irujo eta Olaizola I.aren A taldean ariko da Bengoetxea, eta final hamaseirenetan txertatuko da txapelketan, apirilaren 10ean, Lasa III-Esain partiduko irabazlearen aurka; Barriola, berriz, D taldean eta zortzirenetan jokatu du lehen partidua, apirilaren 17an, Gonzalez edo Koka-Berraondo partiduko irabazlearekin. Talde honetan



Xala da laurdenetan sartuko den jokalaria.

Horrela, bakoitzak bere taldean, aurtun berreskuratu duten eskailera metodoan, finalerdietaraino mailara iritsita, elkarren aurka aritzeko aukera izanen lukete. Hori bai, aukera bakarra eta azkena, finalekoa.

Horrera iristeko burrukutuko dutela ez da zalantzarik. Bengoetxeak iaz ikasitako gogoan izanen du eta oraintsuko bukatu duen Bi-bitakoa «indartsu» bukatu arren, «prestaketa berezirik» baliatuko du tartea, zioenez; Barriolak 2002ko Buruz-buruko txapela berea du. «Fisikoki eta eskutik ere ongi» dagoelarik, «prestaketa-saio onak» eta «eskuak zaintzen» ahaleginduko da.

## LEITZA ▶ GIZARTEA

## «Ez dut sekula halako beldurrik izan, hankak dardarka nituen»

Igor Astibiak adierazitako hitzak dira, TAT-ek argitaratu berri duen 2004. urteko tortura kasuen txostenean

## JAIONE ASTIBIA

Duela aste batzuk iritsi zen Igor Astibiaren eskutitz luze bezain gogorra bere etxera: iazko azaroaren 16ko goizaldeko ordu-bata terdiak aldera Iruñean atxilotu eta 18an, Madrileko (Espainia) Auzitegi Nazionalera, Garzon epailearen aurrera eraman zuten arte, jasandako guztia kontatzen zuen. Orain Torturaren Aurkako Taldeak, beste testigantza batzuekin batera, *Tortura Euskal Herrian, 2004. urteko txostena* liburuan eman du argitara.

Berak igorritako eskutitza zortzi orrialde luzetakoa zen eta haien zati bat da argitaratutako testigantza: atxilotuta egon zenean, galdeketa-saioetan eragin zizkieten torturen kontaketa da. Eragindako tortura fisikoak, psikologikoak...



TAT-ek argitaratutako liburua. J.A.

Era berean, fisikoki nola eta nola gertatu ziren kokatzen saiatu da adierazpenean, berrak une haietan bizi zituen sentimenduak agertuz batera.

Garai haietan, hainbat komunikabidetako berri-emaile bidezik «mainguka sartu da epai-

learengana» baieztatu izan zuten. Bestalde, Auzitegiko atarian bertan, abokatuek ere «oso gaizki pasa du» eman zien aditza hara bertaratu ziren senideei: «Epailearen aurretik pasa ondoren ere, oraindik burua makurtuta behera begira jarraitzen zuela ikusita, jada gora begiratu zezakeela esan behar izan diogu; lasaitzeko».

Berak ailluarazitako eskutitzean argi dio, espetxera eraman zuten arte, ez zela «lasaitu»; berriz ere «galdeketeekin» hasiko ziren beldur zela. Senideek inkomunikazioak irau zuten bitarteko egonez galde-tu arren, hitzik egin nahi gabe, hainbat aste igaro zituen.

Tortura salaketa geroztik egin zuten, konfidantza abokatuen bidez. 130 egun darazmatza kartzelan.

## Zuzeneko testigantza

Igor Astibiak, inkomunikazio egoeran eduki zuten hiru egun haiek irau zuten bitartean, jasan zituen torturen testigantza zuzenaren berri argitaratu da.

«Ez nuen kolpeek ondorio-rik utzi zutenentz begiratu, nahikoa lan banuen hurrengo galdeketerako nire bila noiz etorriko ziren pentsatzearekin!», «pasilorearen bukaeratik (galdeketa gunea) abiatu eta nire ziega ingurura hurbiltzen zirenean bihotza taupadaka, saltoka hasten zitzaidan»; «galderak egiten zizkidaten eta nik ezetz erantzuten kolpe gogorak ematen zizkidaten lepagainean esku irekiarekin. Ukabilkadak ere bai, barrabiletan eta sabelean»; «bapatean, goxoki baten plas-



Igor Astibiaren hitzak dira. HITZA

tikozko estalkia hartu eta belarri ondoan soinua eragiten zuten 'badakizu zer datorren orain' esanez (...) zabor poltsa berde argi bat jarri zidan (...) itotzeko sentsazio larria (...) Arnasa hartzen utzi zidaten apur bat, eta berriro (...);

«aulkian eserita nengoela 'hartzaren besarkada' egin behar zidatela esan zidaten... bapatean kanpoan zegoen norbait deitu eta honek bere besoaz nire lepoa inguratu eta oso gogor estutzen hasi zen. Ezin zuten arnasik hartu, izugarrizko mina egiten zidan eta trakea *krak-krak* egiten hasi zitzaidan, lepoa hautsi zidatela pentsatu nuen, min izugarria zen eta itolarria ere bai. Askatu nindutenean goragalea etorri zitzaidan eta botatzen banuen lurretik jan behar harko nuela esan zidatenez, ahoan eskua jarri eta nolabait eutsi nion»...

Adierazpen hauek guztiak berari jasanarazi ziotenaren guztiaren ereduak besterik ez dira. Bere testigantza da. ◀

## LEITZA ▶

## Haur Eskolan ez da jangelarik oporraldian

Pazko astean, hots, martxoaren 29, 30, 31 eta apirilaren 1ean, Haur Eskolan ez dute jangela zerbitzurik eskainiko. Halaxe dio udaletxetik igorri duten oharra. Zerbitzu hau Erleta eskolatik eskaintzen dute, otorduak han prestatu eta gero, haur-eskolan emateko. Baina udaberriko oporraldia izaki, eskola bezala, sukaldia ere itxita egonen da egun horietan, horrela zerbitzu horrenik ematerik izan gabe.

## LEITZA ▶

## Sutea «eragin» dute Loiategi parajeen

Atzo eguerdian, Leitzako eremuko Loiategi parajeen sutea biztu zen, eta handik Albiñoa aldera hedatu. Sutea, itxura guztien arabera, «eragindakoa» izan zela zioten bertaratu zirenek, jakin izan denez, alde horietan su emateko baimenik ez dago emanik eta. Edozein moduz, baimena dutenek ere, beti eta aurrez, suhiltzaileak jakinaren gainean jartzea beharrezkoa dute. Sua itzaltzera, Leitzako suhiltzaileak joan ziren.

## iragarki laburrak ▶

**Peoiak.** Plaza libreak Hernani, Arrasate, Araman, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro eta Villabonan. 943 65 01 93.  
**Sukaldari laguntzaileak,** sukaldariak, zerbitzariak. Plaza

libreak: ikastetxeak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. Informatu. 943 65 01 93  
**Ostalaritza.** Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. 943 65 01 93 telefonoa.

**Eraikuntza.** Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udaletan Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Haur Hezkuntza.** 106 plaza gaztelaniz, 52 euskaraz. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Mantenua.** Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, arotzak... Plaza libreak: erakunde publikoak. 943 65 01 93.  
**Gidariak.** Plaza libreak: udalak, Eusko Jaurilaritza, Aldundia. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Administrazio laguntzaileak.** Laster sarrerak udal hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Alto, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Añeta. Informazioa doan 943 65 01 93.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 24a, osteguna ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aldaba, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amadeite, Anoeta, Areso, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Eldua, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Izaskun, Larraul, Leaburu, Leizta, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil  
besteriak: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jauraritzaren  
Kultura Salla



GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

15

hotzena

10

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA  
ARALAREN



Guardetxe: bai  
Albi: bai

Pagomari: bai  
Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN  
ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Areso.** Emakumeen afaria larunbatean Pake toki elkartearen. Izen-ematea: okindegian, Sastinea tabernan eta elkartearen.  
**Tolosa.** *Hitch, especialista en ligues* filma Leidorren 19:30ean eta 22:30ean. Bihar berdin, etzi 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean. Astelehenean *Blade trinity* 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.

### ELIZKIZUNAK

#### GAUR

##### Jaunaren afariak

**Abaltzisketa.** 16:30.  
**Aduna.** 17:00.  
**Albiztur.** 17:00.  
**Alegia.** 19:00.  
**Alkiza.** 17:00.  
**Altzo.** 17:00.  
**Amezketak.** 19:00, Ugarte 19:00.  
**Anoeta.** 17:30, 20:30.  
**Areso.** 17:30  
**Asteasu.** 17:00.  
**Baliarrain.** 18:00.  
**Belauntza.** 18:00.  
**Berastegi.** 17:00, Eldua 17:30.  
**Berrobi.** 17:00.  
**Elduain.** 19:00.  
**Gaztelu.** 19:00.  
**Hernialde.** 19:00.  
**Ikaztegieta.** 19:00.  
**Irura.** 19:00.  
**Larraul.** 17:00.  
**Leaburu.** 19:00,  
Txarama 18:00.

**Leizta.** 17:00.  
**Lizartza.** 11:00 (haur), 18:00.  
**Orendain.** 18:00.  
**Oresa.** 19:30.  
**Tolosa.** Santa Maria 17:00 (eukaristia euskaraz), 19:00, Olarrain 21:00, Korpus Kristi 19:00, San Frantzisko 19:00, Arramele 18:00, Santa Klara 19:00, Amaro 18:00, Aldaba 20:00, Bedaio 17:00, Izaskun 17:00.  
**Villabona.** 11:00 (haurrentzat), 19:00, Amasa 17:00.  
**Zizurkil.** Arantzazuko Ama 19:00, San Millan 17:00.

#### Ordu Santua

**Areso.** 21:00.  
**Leizta.** 23:00.  
**Tolosa.** Santa Maria 22:00, Korpus Kristi 22:00.  
**Villabona.** 21:30.

#### BIHAR

##### Gurutze-bideak

**Abaltzisketa.** 10:00.  
**Aduna.** 09:00.  
**Albiztur.** 08:00.  
**Alegia.** 07:30 eta 11:00 (gaztel)  
**Altzo.** 10:00.  
**Amezketak.** 09:00, Ugarte 11:00.  
**Anoeta.** 10:00.  
**Areso.** 12:00.  
**Asteasu.** 09:00, elizan.  
**Belauntza.** 12:00.  
**Berastegi.** 10:00.  
**Bidegoian.** Bidania, 09:00; Goiatz, 10:00.  
**Elduain.** 11:30.

**Ibarra.** 10:00.  
**Ikaztegieta.** 11:00.  
**Irura.** 11:00.  
**Larraul.** 09:00.  
**Leaburu.** 11:30.  
**Leizta.** 08:00.  
**Lizartza.** 09:30.  
**Tolosa.** Izaskun 07:30. Santa Maria, 11:00. Korpus Kristi, 12:00. San Frantzisko, 10:00. Aldaba, 11:00.  
**Villabona.** 08:00 Amasara, 10:00 elizan.  
**Zizurkil.** San Millan, 07:00; Elbarrena-Arantzazu, 21:00.

#### Nekaldiak

**Abaltzisketa.** 16:30.  
**Aduna.** 17:00.  
**Albiztur.** 17:00.  
**Alegia.** 17:00.  
**Alkiza.** 17:00.  
**Altzo.** 19:00.  
**Amezketak.** 18:00.  
**Anoeta.** 17:00.  
**Areso.** 17:30.  
**Asteasu.** 17:00.  
**Baliarrain.** 18:30.  
**Belauntza.** 15:30.  
**Berastegi.** 17:00, Eldua 16:30.  
**Berrobi.** 18:30.  
**Bidegoian.** Bidania 19:00, Goiatz 18:00.  
**Elduain.** 19:00.  
**Gaztelu.** 17:00.  
**Hernialde.** 19:00.  
**Ibarra.** 19:00.  
**Ikaztegieta.** 19:00.  
**Irura.** 19:30.  
**Larraul.** 17:00.  
**Leaburu.** 16:30,  
Txarama 18:00.  
**Leizta.** 17:00.

**Lizartza.** 11:00 (haur eta gurasoentzat) 18:00.  
**Orendain.** 18:30.  
**Oresa.** 19:00.  
**Tolosa.** Santa Maria 18:00, Arramele 17:00, San Frantzisko 17:00, Santa Klara 18:00, Aldaba 19:00, Bedaio 17:00, Korpus Kristi 18:00, Amaro 18:00, Olarrain 21:00.  
**Villabona.** 11:00 (haurrak), 19:00, Amasa 16:30.  
**Zizurkil.** San Millan, 16:00; Elbarrena-Arantzazu, 18:00.

#### ETZI

##### Pazko gaubelak

**Aduna.** 19:00.  
**Alegia.** 20:00.  
**Alkiza.** 22:00.  
**Asteasu.** 21:00.  
**Areso.** 21:30.  
**Belauntza.** 19:00.  
**Berastegi.** 21:00, Eldua 18:00.  
**Berrobi.** 20:00.  
**Bidegoian.** Bidania, 19:30; Goiatz, 21:00.  
**Elduain.** 21:00.  
**Gaztelu.** 20:00.  
**Ibarra.** 19:30.  
**Irura.** 21:00.  
**Leaburu.** 20:00.  
**Leizta.** 22:00.  
**Lizartza.** 20:30.  
**Oresa.** 22:00.  
**Tolosa.** Santa Maria 22:00, Arramele 20:30, San Frantzisko 21:00, Santa Klara, 21:00, Korpus Kristi 21:00, Amaro 20:00.  
**Villabona.** 21:00,  
Amasa 22:00.

**Zizurkil.** Arantzazu 22:00.

### IGANDEA

#### Mezak

**Abaltzisketa.** 10:00,  
Larraitz 12:30.  
**Aduna.** 11:00.  
**Albiztur.** 11:15.  
**Alegia.** 11:15.  
**Alkiza.** 10:00.  
**Altzo.** 10:00.  
**Amezketak.** 11:30,  
Ugarte 10:00.  
**Anoeta.** 12:00.  
**Areso.** 12:00.  
**Asteasu.** 11:15.  
**Baliarrain.** 11:15.  
**Belauntza.** 12:00.  
**Berastegi.** 12:00,  
Eldua 10:00.  
**Berrobi.** 11:30.  
**Bidegoian.** Bidania, 11:30.  
**Elduain.** 10:00.  
**Gaztelu.** 10:30.  
**Hernialde.** 12:30.  
**Ibarra.** 11:00 eta 12:00.  
**Ikaztegieta.** 12:30.  
**Larraul.** 09:30.  
**Leaburu.** 10:30.  
**Leizta.** 11:00.  
**Lizartza.** 11:00.  
**Orendain.** 11:15.  
**Oresa.** 12:00.  
**Tolosa.** Santa Maria, 11:00 eta 12:30, San Frantzisko 08:00, 10:00, 11:00, 12:00 eta 13:00, Aldaba, 12:30, Bedaio, 10:00, Amaro, 09:30 eta 12:30.  
**Villabona.** 12:30, Amasa 11:00.  
**Zizurkil.** San Millan 11:00, Elbarrena-Arantzazu 12:30.

## AGURRAK ▶



### EUSKAL PRESOAK GOSE GREBAN

Hamargarren eguna. Askatasunik gabe eta gainera gose greban. Hori bai dela herria maitatzea. Tolosaldeko eta Leizaldeko herri plataformak.



### URTE ASKOAN

Eneritz Sorarrain (Anoeta). Gaur 2 urte. Zorionak kottorra aitako, amabio eta Maitaneren partetik. Muxu handi bat.

## HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak...

zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!